

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2015eko EKAINAREN 10ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN OSPATUTAKO EZ-OHIKO PLENOAREN AKTA

2015eko ekainaren 10ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 13.00orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Gotzon Jauregi Sarasola
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa

Bere ezin etorria azaltzen dute: Jon Tejeria Otermin eta Karlos Irazu Muñoa.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

GAI ZERRENDA

1. Ondoren adierazten den Udalbatzako akta onestu, hala bada:

☐ 2015-05-07an ospatutako Udalbatza arruntaren akta.

2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.


LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZAKO AKTA ONESTU, HALA BADA

☐ 2015-05-07an ospatutako Udalbatzarako arruntari dagokion akta irakurri ondoren, Udalbatzarak **ahobatez** onesten du.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

13/2015 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 22koa, Y.P.. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, 2014/2015 ikasturtearen amaieratik, 2015/2016 ikasturtearen hasierarte, astelehenetan Herri Ostatua ixteko baimena ematea, ebazten duena.

14/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 8koa, Bateriaezintasun eta Jarduteko ezintasunei buruzko erregistroa, eta ondare ondasunei eta sozietateetan parte hartzeari buruzko erregistroa eratzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 13.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA